

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.  
**Bilera-mota:** ohikoa.  
**Eguna:** 2011/02/23.  
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:10.  
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.  
Mikel Alzelai Zulaika.  
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain.  
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.  
Fco. Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia.  
Amaia Alcelay Guerrico, EAJko zinegotzia.  
Lucía Areizaga Aranburu, Alkarbideko zinegotzia  
M<sup>a</sup> Aranzazu Arizmendi Gereñu, Alkarbideko zinegotzia.  
Vicente Garmendia Martinez, Alkarbideko zinegotzia.  
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia.  
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.  
Oscar Murillo, PSE-EEko zinegotzia.  
Fernando Arakama, kontuhartzailea.  
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.

**Aztergaiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2011/01/26ko bilkurari dagokion akta onartzea.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

2. Bidezkoa bada, Hirigintzako, eraikuntzako eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko eta iraunarazteko Legazpiko Udala Ordenantzaren aldaketa puntuala hasiera batean onartzea

**LANGILEAK:**

3. Bidezkoa bada, Osasun-zentroko zaindariak berresleitzeko Enplegu-plana onartzea.

**Organo o Comisión:** Pleno.  
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.  
**Día:** 23/02/2011.  
**Hora:** Comienzo, 19:30 y final, 20:10.  
**Lugar:** Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**

Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.  
Mikel Alzelai Zulaika.  
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain.  
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV.  
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV.  
Amaia Alcelay Guerrico, concejal de PNV.  
Lucía Areizaga Aranburu, concejal de Alkarbide  
M<sup>a</sup> Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de Alkarbide  
Vicente Garmendia Martinez, concejal de Alkarbide  
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak  
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita  
Oscar Murillo, concejal de PSE-EE  
Fernando Arakama, Interventor.  
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.

**Orden del Día:**

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 26/01/2011.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

2. Aprobación inicial, si procede, de la modificación puntual de la Ordenanza Municipal de Urbanización, Edificación y Protección y Sostenibilidad Ambiental, Paisajística y Naturalística del Municipio de Legazpi.

**PERSONAL:**

3. Aprobación, si procede, del Plan de Empleo para la Reasignación de los Celadores del centro de salud.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

**ALKATETZA:**

4. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
5. Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2011/01/26ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Akta aldeko 12 botorekin onartu da.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

2. Bidezkoa bada, Hirigintzako, eraikuntzako eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko eta iraunarazteko Legazpiko Udal Ordenantzaren aldaketa puntuala hasiera batean onartzea.

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko otsailaren 15ean egin zen hirigintza batzordean honako dokumentua aurkeztu zela jakinarazi du: Hirigintzako, eraikuntzako eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko eta iraunarazteko Legazpiko Udal Ordenantzaren aldaketa puntuala hasiera batean onartzea.

Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egin dio Osoko Bilkurari:

- 1.- Legazpiko Hirigintzako, eraikuntzako eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko eta iraunarazteko Legazpiko Udal Ordenantzaren aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, 14. artikuluan ondoko lerraldia gehituz:

“6. Lurzoru mota guztietan aurrera eraman beharreko eraikuntza lan ororen kasuan (obra berria, berreraikitzea, birgaitze, erreforma, ordezkapen eta antzerakoak), exekuzio materialari dagokion aurrekontuaren %5eko bermea jarri beharko da inguruko urbanizazioa, jabego publikoa, ingurugiro lehenespenak eta, oro har, ordenantza honetan jasotzen den

**ALCALDIA:**

4. Dar cuenta de los decretos dictados.
5. Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 26/01/2011.

El acta es aprobada con 12 votos a favor.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

2. Aprobación inicial, si procede, de la modificación puntual de la Ordenanza Municipal de Urbanización, Edificación y Protección y Sostenibilidad Ambiental, Paisajística y Naturalística del Municipio de Legazpi.

Toma la palabra el Alcalde. Se presenta ante la comisión de urbanismo del día 15 de febrero de 2011 la aprobación inicial de la modificación puntual de la ordenanza municipal de urbanización, edificación y protección y sostenibilidad ambiental, paisajística y naturalística del municipio de Legazpi.

La Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno el siguiente dictamen:

- 1.- Aprobar inicialmente la modificación puntual de la ordenanza municipal de urbanización, edificación y protección y sostenibilidad ambiental, paisajística y naturalística del municipio de Legazpi correspondiente al artículo 14 añadiendo el párrafo siguiente:

“6. En todos los trabajos de construcción (obra nueva, reconstrucción, rehabilitación, reforma, sustitución y asimilables), indistintamente del tipo de suelo que se trate, deberá garantizar con un aval del 5% sobre el presupuesto de ejecución material, el buen estado final de la urbanización circundante, los bienes públicos, valores ambientales y, en general, el cumplimiento de lo

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

guztia betetzen dela ziurtatzeko.”

2.- Iragarkia jendaurrean agerian jarriko da Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Irizpena botaziora eraman ondoren, aldeko 10 botorekin eta bi abstentziorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia) onartu da.

**LANGILEAK:**

**3. Bidezkoa bada, Osasun-zentroko zaindariak berresleitzeko Enplegu-plana onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Sortu diren bi plaza berriak kaltetutako langileei esleitu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Osoko Bilkurak Enplegu-plan bat edo giza baliabideak arrazionalizatzeko programa bat onartzea. Plan edo programa hori behin-behineko idazkariak egin duen eta Alkateak Dekretu bidez onartu duen Memoria Teknikoan oinarritzen da. Memoria Pertsonal batzordean aztertu da. Horrela, joan den 2011ko otsailaren 16an bildu den Pertsonal batzordeak honako irizpena proposatu nahi dio Osoko Bilkurari:

1. Osasun-zentroan zelari edo zaindari lanak betetzen zituzten langileentzako egin den Enplegu-plana edo giza baliabideak arrazionalizatzeko programa onartzea. Hauek dira plan edo programa horretan jaso diren neurriak:

preceptuado en esta ordenanza.”

2.- Someter a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 2 abstenciones (Oscar Murillo concejal de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**PERSONAL:**

**3. Aprobación, si procede, del Plan de Empleo para la Reasignación de los Celadores del centro de salud.**

Toma la palabra el Alcalde. Para proceder a reasignar a los trabajadores afectados las dos plazas creadas, será necesario que el Pleno apruebe un Plan de Empleo o un programa de racionalización de recursos humanos basado en la Memoria Técnica elaborada por la Secretaria Accidental, aprobada por Decreto de Alcaldía y tratada en la comisión de personal. Así, la comisión de Personal del 16 de febrero de 2011, propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Aprobar el presente Plan de Empleo o Programa de Racionalización de Recursos Humanos para los trabajadores adscritos como celadores al Centro de Salud que comprenderá las siguientes medidas:

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

1. Joan den 2011ko urtarrilaren 26an egin zen Osoko Bilkurak 2011. urterako lanpostuen zerrenda onartu zuen hasiera batean. Zerrenda horretan, batetik, Osasun-zentroko bi zaindarien lanpostuak amortizatu dira eta, bestetik, bi lanpostu berri sortu dira: bat eginkizun askotariko peoia eta, bestea, etxezaina. Jendaurrean egoteko epean ez da alegaziorik aurkeztu, beraz, lanpostuen zerrenda behin betiko onartu da eta ez da berriro Osoko Bilkurara eramango berariazko erabakia hartzeko.

2. Aurrekoa ikusita, langile horien berresleipena onartzen da. Berresleipen horren ondorioz, Osasun-zentroan orain arte zeuden zaindarien bi lanpostu amortizatu dira eta lanpostu horiek betetzen zuten bi langileak, prestakuntza jaso eta dagokion prozedura burutu eta gero, sortu berri diren Obralantaldeko eginkizun askotariko peoi plaza eta Kultura saileko etxezain plaza betetzera pasatuko dira.

3. Erabakiari 2 eranskin gehitu zaizkio: I. eranskinean, berresleitu beharreko langileen zerrenda eta egin den Programan lanpostu bakoitzerako jaso diren banan-banako neurriak jaso dira eta II. eranskinean, lanpostu sortu berriak jasotzen dituen 2011rako onartu den lanpostuen zerrenda jaso da.

2. Enplegu-plana Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Irizpena botaziora eraman ondoren, aldeko 9 botorekin eta 3 abstentziorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia, Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia eta Iñaki Sanchez Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia) onartu da.

1. El Pleno celebrado el 26 de enero de 2011, aprobó inicialmente la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2011 en la que, por una parte, se amortizaron los dos puestos de celadores del Centro de Salud y por otra parte, se crearon dos nuevos puestos de trabajo: un puesto de peón de cometidos múltiples y un puesto de Ordenanza. Durante el periodo de información pública, no se han presentado alegaciones por lo que la RPT queda definitivamente aprobada sin necesidad de acuerdo expreso por parte del Pleno.

2. A la vista de lo anterior, se aprueba la reasignación de efectivos que conllevará la adscripción definitiva, previo periodo de formación y previa tramitación de proceso correspondiente, de los dos trabajadores afectados por la amortización de sus puestos de trabajo como celadores del centro de salud a los puestos de peón de cometidos múltiples de la Brigada de Obras y Ordenanza del Area de Cultura.

3. Se incorpora al acuerdo como anexo I la relación de los trabajadores afectados por la reasignación de efectivos y las medidas individualizadas en que se concreta el presente Programa para cada puesto y como anexo II la RPT aprobada para el 2011 que incorpora las dos nuevas plazas creadas.

2. Publicar el presente Plan de Empleo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 9 votos a favor y 3 abstenciones (Oscar Murillo concejal de PSE-EE, la concejala no adscrita Ana Salinero y el concejal de Ezker Batua Berdeak Iñaki Sanchez).

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

**ALKATETZA:**

**4. Bidezkoa bada, 2/2011 kreditu transferentzia onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Gaia ez da Aztergaien artean aurreikusi. Horregatik lehenik eta behin urgentzia bozkatu behar da.

Urgentzia botaziora eraman ondoren, aldeko 10 botorekin eta kontrako 2 botorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia) onartu da.

Alkateak hartu du hitza eta honakoa dio: Udal honen ohiko Aurrekontuaren barnean Gastuen aurrekontu-partiden arteko transferentzia bidez Kredituak Aldatzeko izapidetzen den espedientea ikusirik.

Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak formulatutako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horretan egindako gainerako jarduketak aztertu ondoren, adierazitako aldaketa Aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta espediente horren izapidea aplikagarria zaion indarreko legezko araudiari egokitzen zaiola kontuan hartuz,

Joan den 2011ko otsailaren 22an ospatutako Ogasun batzordeak bidezkotzat jo du Osoko Bilkurari proposatzea 104.979,66 €ko zenbatekoaz kreditu transferentzia onets dezala, hala kreditu-gehikuntzan (altak) nola kreditu-transferentzietan (bajak) eta aipatutako proposamenean ageri diren Gastuen aurrekontu-partiden xehetasun berarekin.

Arantza Arizmendi zinegotziak hartu du hitza eta bere taldea abstenitu egingo dela jakinarazi du. Horrela, orain dela hilabete bat 250.000 €ko zorduntzea zuen aurrekontu proposamen bat aurkeztu zaie eta orain behar guztiak erremanenteekin beteta daudela ikusten da. Ez daki nola iritsi den egoera horretara eta horregatik abstenitu egingo dira.

**ALCALDIA:**

**4. Aprobacion, si procede, de la transferencia de créditos 2/2011.**

Toma la palabra el Alcalde. Al ser un tema no incluido en el orden del día se procede votar previamente la Urgencia.

Sometida la urgencia a votación es aprobada con 10 votos a favor y 2 votos en contra (Oscar Murillo concejal de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

Toma la palabra el Alcalde. Visto el expediente de Modificación de Créditos que se instruye mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos dentro del Presupuesto corriente de este Ayuntamiento.

Examinada la propuesta formulada por los Concejales Delegados de los servicios así como los informes, certificaciones y demás actuaciones practicadas en dicho documento, teniendo en cuenta que la expresada modificación ha de contribuir a al agilización del desarrollo del Presupuesto y que la instrucción de dicho expediente está ajustada a la normativa legal vigente que le es de aplicación,

La Comisión de Hacienda celebrada el 22 de febrero de 2011 estima procedente proponerle al Pleno la aprobación de la transferencia de créditos 2/2011 por su importe de 104.979,66 € tanto en incrementos de créditos (altas) como en transferencias de créditos (bajas) y con igual detalle de partidas presupuestarias de Gasto que figuran en dicha propuesta.

Toma la palabra Arantza Arizmendi. Su grupo se va a abstener porque se les ha presentado hace un mes una propuesta de presupuesto con un endeudamiento de 250.000€ y ahora resulta que todas las necesidades están cubiertas con los remanentes. No sabe como se ha llegado a esta situación por lo que se van a abstener.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

Ane Urkiolak hartu du hitza. Bere taldeak aldeko botoa emango du. Azken finean, 2011ko aurrekontuei dagokienez puntu batzuetan ez ziren adostasun batera iritsi, baina beste puntu batzuetan bai. Azken finean kreditu transferentzia eta kreditu gehigarri hauekin futbol zelaiaren inbertsioak osatzea, epe luzerako zorra ordaintzea eta Musika eskolarako kredituen periodifikazioa aurreikusten da. Adostutako gauzak zirenez, aldeko botoa emango dute.

Segidan, alkateak hartu du hitza. Kreditu-aldaketa horiekin 2011ko aurrekontua betetzera iritsiko da eta jaso diren diru-laguntzekin lortu da hori.

Arantza Arizmendi zinegotziak hartu du hitza. Beraiek ados daude guzti horiekin eta inbertsioekin baina beraiei lehen eman zizkieten kopuruak eta orain atera direnak ez datoz bat.

Alkateak hartu du hitza eta datorren hilabetean beste kopuru batzuk egongo direla dio, diru-laguntza gehiago egongo direlako.

Gaia botaziora eramanez ondoren, aldeko 7 botorekin, 3 abstentziorekin (Alkarbideko zinegotziak) eta kontrako 2 botorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia) onartu da.

**5. Bidezkoa bada, 2/2011 kreditu gehigarriak onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Gaia ez da Aztergaien artean aurreikusi. Horregatik lehenik eta behin urgentzia bozkatu behar da.

Urgentzia botaziora eramanez ondoren, aldeko 10 botorekin eta kontrako 2 botorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia) onartu da.

Toma la palabra Ane Urkiola. Su grupo votará a favor. En algunos puntos del presupuesto de 2011 no llegaron a un acuerdo pero si en otros. Al fin y al cabo con esta transferencia de créditos y con los créditos adicionales se completaran las inversiones del campo de futbol, se pagará la deuda de largo plazo y también se utilizaran para la periodificación de los créditos para Musika Eskola. Al tratarse de asuntos consensuados votarán a favor.

Toma la palabra el Alcalde. Con estas modificaciones de créditos van a llegar a cubrir el presupuesto de 2011 y se ha llegado con unas subvenciones que se han recibido.

Toma la palabra Arantza Arizmendi. Ellos están de acuerdo con todo eso y con las inversiones pero a ellos las cifras que se les dijeron en otro momento no coinciden con las que luego han sido.

Toma la palabra el Alcalde. Esta convencido de que el mes que viene habrá otras cifras porque habrá más subvenciones.

Sometido este punto a votación es aprobado con 7 votos a favor, 3 abstenciones (los concejales de Alkarbide) y 2 votos en contra (Oscar Murillo concejal de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**5. Aprobación, si procede, de los creditos adicionales 2/2011.**

Toma la palabra el Alcalde. Al ser un tema no incluido en el orden del día se procede votar previamente la urgencia.

Sometida la urgencia a votación es aprobada con 10 votos a favor y 2 votos en contra (Oscar Murillo concejal de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

Alkateak hartu du hitza. Udal honen 2011ko ekitaldiko Aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Aurrekontu partidetak kredituak gehitzeko proposamenak eta hauek finantzatzen dituzten baliabideak, eta txostenak, ziurtagiriak eta aipatutako agirian egindako gainerako jarduketak ere aztertu ditugu.

Gastuak burutzeko premia larria eta aipatutako gehikuntzak finantzatzen dituzten baliabideen eraginkortasuna behar bezala egiaztatuta geratu da eta kreditu aldaketa hori Aurrekontuaren garapena arintzeko eta eragiten dien zerbitzuen kudeaketa hobetzeko mesedegarria izango da.

Halaber, Fondoan Kontu-hartzaileak egin duen txostena ikusi ondoren, non jasota gerarazi baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion legezko araudiari egokitzen zaio.

2011ko otsailaren 22an ospatutako Ogasun Batzordeak plenoari proposatzen dio kreditu gehigarria onar dezala, kreditu gehikuntzen 259.000,00 euroko zenbatekoaz eta hauek finantzatzen dituzten baliabideen kopuru berdinean eta proposamenetan ageri den xehetasun berarekin.

Gaia botaziora eraman ondoren, aldeko 7 botorekin, 3 abstentziorekin (Alkarbideko zinegotziak) eta kontrako 2 botorekin (Oscar Murillo PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero atxiki gabeko zinegotzia) onartu da.

#### **6. Zorrotz enpresako langileak aurkeztutako mozioa.**

Alkateak hartu du hitza. Gaia ez da Aztergaien artean aurreikusi. Horregatik lehenik eta behin urgentzia bozkatu behar da.

Toma la palabra el Alcalde. Visto el expediente que se instruye para modificar créditos mediante Créditos Adicionales dentro del Presupuesto de este Ayuntamiento correspondiente al ejercicio de 2011.

Examinadas las propuestas de incrementos de créditos de las partidas presupuestarias y de los recursos que las financian así como los informes, certificaciones y demás actuaciones practicadas en dicho documento.

Teniendo en cuenta que queda suficientemente acreditada la urgente necesidad de la realización de los gastos así como la efectividad de los recursos que financian tales incrementos y que dicha modificación de Créditos ha de contribuir a agilizar el desarrollo del Presupuesto y una mejor gestión de los servicios a que afecta.

Visto asimismo el informe del Interventor de Fondos haciendo constar que la instrucción de dicho expediente se ajusta a la normativa legal vigente que le es de aplicación.

La Comisión de Hacienda celebrada el 22 de febrero de 2011 le propone al Pleno la aprobación de créditos adicionales, por un importe de 259.000,00 euros de incrementos de créditos e igual cifra de los recursos que los financian y con el mismo detalle que figura en las propuestas.

Sometido este punto a votación es aprobado con 7 votos a favor, 3 abstenciones (los concejales de Alkarbide) y 2 votos en contra (Oscar Murillo concejal de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

#### **6. Moción presentada por los trabajadores de la empresa Zorrotz.**

Toma la palabra el Alcalde. Al ser un tema no incluido en el orden del día se procede votar previamente la urgencia.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

Urgentzia botaziora eraman ondoren, aldeko 12 botorekin onartu da.

J.E. Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza eta Zorrotz enpresako langileek aurkeztu duten idatziaren eta mozioaren berri eman du. Bi agiriak akta honi erantsi zaizkio.

Mozioa botaziora eraman ondoren, aldeko 12 botorekin onartu da.

### **7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.**

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta Sidenor enpresari barkatu zaion zerga-zor zati bati buruz eman den Dekretuaren gainean galdetu du.

Alkateak hartu du hitza. Barkatze hori Jarduera ekonomikoen gaineko zerga goiz ordaintzeagatik dela erantzun du. Herriko enpresa guztiei aztertzen ari zaizkie zerga hori. Isun bat dago eta goiz ordaintzeagatik barkatze hori dago.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta isunaren zenbatekoa eta barkatu zaiona zenbat izan den galdetu du.

Alkateak hartu du hitza. Barkatzeari dagokionez, lehen aldia delako %10, laguntzeagatik %10 eta goiz ordaintzeagatik %40. Gai hori batzordean azaldu zen.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta informazio hori Osoko Bilkuran jaso duela erantzun du. Isuna zenbatekoa izan den galdetu du.

Alkateak hartu du hitza eta datu zehatza ez duela baina 225.000 € inguru izango zirela erantzun du.

### **8. Eskariak eta galderak.**

Alkateak Zorrotz enpresako langileei eman die hitza.

Sometida la urgencia a votación es aprobada con 12 votos a favor.

Toma la palabra J.E Uribeetxeberria para dar cuenta de un escrito y una moción presentada por los trabajadores de Zorrotz. Ambos documentos se adjuntan al presente acta.

Sometida la moción a votación, es aprobada con 12 votos a favor.

### **7. Dar cuenta de los decretos dictados.**

Toma la palabra Ane Urkiola. Pregunta sobre el Decreto que hace referencia a una condonación parcial de una deuda tributaria a Sidenor.

Toma la palabra el Alcalde. La condonacion es por un pronto pago del IAE. Se le está revisando el IAE a todas las empresas del pueblo. Existe una multa y al haber un prontopago hay una condonación.

Toma la palabra Ane Urkiola. Pregunta sobre la cuantía de la multa y de la condonación.

Toma la palabra el Alcalde. En cuanto a la condonación, por ser la primera vez es del 10%, otro 10% por colaboración y un 40% por prontopago. Este tema ya está explicado en comisión.

Toma la palabra Ane Urkiola. Indica que ha recabado la información en el Pleno. Pregunta sobre la cuantía de la multa.

Toma la palabra el Alcalde. No tiene el dato exacto de la cuantía pero calcula que serán unos 225.000€

### **8. Ruegos y preguntas.**

EL Alcalde cede la palabra a los trabajadores de Zorrotz.



**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2011/02/23**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**23/02/2011**

Ez dakite Korporazioak Zorrotz enpresako jabeekin izan duten bilerak zer eman duen. Dena den, mozioa bozkatu egin da eta eskertu egin nahi dute hori. Enpresak hitz egiteko izan duten aukera bakarra gaia udaletxera ekartzea izan dela adierazi dute. Gerentea ez da enpresara lanera joaten, etxean jasotzen du bere soldata. Pertsona horri bost axola enpresa, berdin zaio aurrera egitea edo hondoratzea. Gerenterik gabe daude eta langileak dira enpresa aurrera daramatenak, epailek ixteko agindu eman arte. Gaia udaletxera ekarri dute jabeek beraien jarrera azal dezaten, langileei ez baitieten ezertxo ere esan, gezurrak besterik ez. Aurkeztu duten idatzian dokumentatutakoa dago jasota baina dokumentuekin egiaztatu ezin dena oraindik larriagoa da.

Alkateak hartu du hitza eta, langileek eskatu zutena betez, gaur bildu direla enpresakoekin esan du eta langileekin bil daitezela eskatu diete. Langileekin bilera bat egingo da informazioa emateko.

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Enpresarekin hitz egin ondoren, langileekin beste bilera bat egin daitekeela uste du, inpresioak elkar trukatzeko bada ere. Ez du uste Osoko Bilkura denik korporazioak enpresarekin bildu eta gero jaso duen inpresio horren berri langileei emateko lekua.

Alkateak, arratsaldeko 20:10ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezten akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Desconocen el contenido de la reunión mantenida por la Corporación con los dueños de Zorrotz. En todo caso, agradecen que se haya votado la moción. Indican que la única manera que han tenido para que la empresa hable ha sido traerles al Ayuntamiento. El Gerente ya no va a la empresa, solo recibe su sueldo en casa. Es una persona que no piensa en la empresa, le da igual que se hunda o que no. Estan sin gerente y son los propios trabajadores los que llevan la empresa hasta el día que el juez la cierre. Han traído el tema al Ayuntamiento para que los dueños expresen su postura porque a los trabajadores solo les llegan largas y mentiras. En el escrito que han presentado solo aparece lo que está documentado, lo que no está documentado es bastante más grave todavía.

Toma la palabra el Alcalde. Hoy se han reunido con la empresa, como los trabajadores propusieron y le han pedido que se reúna con los trabajadores. Hará una próxima reunión con los trabajadores para informarles.

Toma la palabra Iñaki Sanchez. Entiende que despues de haber estado con la empresa se podría hacer una reunión con los trabajadores para cambiar impresiones. No cree que el Pleno sea el lugar ni la forma de comunicar a los trabajadores la impresión que la corporación tiene de lo trasladado por la empresa.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20:10 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

<p style="text-align: center;"><b>UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</b></p> <p style="text-align: center;"><b>2011/02/23</b></p>	<p style="text-align: center;"> <b>LEGAZPIKO UDALA</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</b></p> <p style="text-align: center;"><b>23/02/2011</b></p>
--	---	---

<p>Akta hau 2011/03/30an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 30/03/2011:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p style="text-align: center;">Ainhoa Urruela Bordegarai Idazkaria</p>	<p style="text-align: center;">Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>